

**ERTZAINZA DONOSTIAN HEDATZEAREN XXV.URTEURRENA
XXV ANIVERSARIO DEL DESPLIEGUE DE LA ERTZAINZA EN DONOSTIA**

2019-01-24 Donostia 24-01-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Donostiako Alkatea, Ertzaintzaren arduradunok eta kideok, jaun andreok, egun on.

Lehenik eta behin, zorionak 25 urteotan Ertzain-etxe honetako agintaritzaren eta arduraren katebegi izan zaretenoi.

Testigantza bikainak entzun ditugu zuengandik, ikusi berri dugun bideoan. Zorionak, baita ere, bertan 25 urteko ibilbide profesional aberats eta emankorra bizi izan duzuen ertzain lagunoi.

Eskerrik asko zuen eguneroko lanarekin donostiarren **ongizate eta bizikidetz**a **sendotzen** lan egiten duzuen ertzain gizon eta emakumeoi.

Zeuen lekukotza da, Ertzaintzak, donostiarrek eta euskal gizarteak arro aldarrika dezaketen zerbait. Hau da gure herri izaeraren eta gizarte antolakuntzaren **ondararik ederrenetako bat**.

La institución de la Ertzaintza continua avanzando con paso firme y, en la visita que hemos realizado, acaban de darme el dato: más de 3.500 personas han decidido presentarse a las pruebas de la 28 promoción. Todavía quedan 7 días para poder inscribirse, pero, a día de hoy, más de 2.400 hombres y 1.100 mujeres se han presentado al proceso de selección para acceder a las 500 nuevas plazas de la Ertzaintza.

Esta Ertzain-etxea de Donostia, dando continuidad a un signo de identidad de esta institución, volverá a recibir personas jóvenes dispuestas a aprender, reforzar la formación recibida en la Academia y mantener viva la tradición de **servicio y compromiso con la ciudadanía**.

Duela 25 urte, Donostia izan zen lehen hiriburua Ertzaintzaren zerbitzua ezagutzen. Hasiera ez zen samurra izan: zailtasun eta ezintasun asko gainditu behar izan ziren; zentzugabekeri ugari saihestu; inkonpresio eta bazterkeri antzu askori aurre egin behar izan zitzaion.

Guzti horren aurrean Ertzaintzak bidea egin du, gizarteari geroz eta segurtasun hobea bat bermatuz; gertuko zerbitzua eskainiz.

Bidea egin duzuenoi zorionak eta eskerrik asko!

Gaur jakin dugu bide horrek jarraipen sendoa izango duela: 28garren promoziorako 3.500 pertsonak eman dute izena.

Hau da gaurko errealitatea, **Ertzaintzaren izen onaren isla**. Hau da gaur Donostiako Ertzain-etxearen urteurrenean ospatzen duguna: “25 urte donostiarren zerbitzura; 25 urte donostiarren begirunea jasoz; **beti hobekuntza bidean.**”

Donostia conoció el primer despliegue de la Ertzaintza en una capital. La semilla que sembrasteis Iñaki, Alfonso y quienes participasteis en el primer despliegue cayó en tierra fértil.

La contribución de jefes de unidad como Xabier, Juanjo, Patxi, y quienes habéis constituido esta Ertzain-etxea, es el mejor de los legados que hoy **reconocemos con orgullo.**

Frente a los retos y las dificultades, ilusión, trabajo en equipo, compromiso con el proyecto y la satisfacción de los logros alcanzados con el servicio diario.

Es evidente que también hoy tenemos dificultades colectivas. Dificultades que debemos seguir resolviendo en clave de convivencia, transparencia y vocación de servicio.

No todo está hecho, no todo está resuelto. Ni en la Ertzaintza, ni en los retos que cada día nos plantea la seguridad pública.

Tenemos que ser capaces de seguir construyendo nuestro futuro con los mimbres de ilusión que brotan de las dificultades superadas.

Trabajo en equipo, colaboración, **“auzolana” al servicio del bien común**. Os pido que no dejéis que las dificultades suplanten o anulen las dosis de ilusión que requieren los proyectos compartidos y las cosas bien hechas.

La sociedad vasca aprecia y agradece vuestro trabajo. La seguridad ciudadana, la seguridad pública es un bien común por el que Ertzaintza y Policías locales debemos seguir mostrando **todo nuestro compromiso y determinación.**

Así fue hace 25 años, y así seguirá siendo con la incorporación de las y los jóvenes que están dando un paso al frente en el relevo generacional de la Ertzaintza.

Udaltzaingoarekin lankidetzan, erakundeekiko eta gizartearekiko harreman-zubiak etengabe eraikiz eta berrituz, hiritarren eta bisitarien segurtasun premiei prestutasunez erantzun jarraitu behar dugu.

Horrela izan zen duela 25 urte, Ertzaintza Donostiara iritsi zenean. Horrela izango da belaunaldi berriak Ertzain-etxeetara eta Euskadiko kaleetara iritsi hala.

Historian zehar **Ertzaintzak beti izan eta erakutsi duen zerbitzu izaera**, etengabe berritzen ari zarete.

Zorionak eta eskerrik asko!